


ttipi-ttapa

1992.eko Apirilak 2

83. zenbakia

dohain banatzen da



**CAUZATUKO OTE DA
ZENTSURA MOZIOA?**

MOLINO

OINETAKOAK

*Zure oina zabala edo
problematikoa bada, neurrira
egindako oinetakoak baina
hobeak aurkituko dituzu,
moda modakoak*

Pº Colon 29, ☎ 943-611266 - IRUN



*Oraindik ez baduzu
zurea erosi,
mugi azkar!
azken banaka
batzuk
baino ez dira
gelditzen eta!*

ttipi-ttapa

URTEKARIA 91

Herri guzietako urteko berrien balantzeak, datu estadistikoak,
kolaborazioak, kirolak, agroturismoaz mahai-ingurua...
guzi-guzia argazki pila batez lagundua

AMAIUR

**sukalde eta
bainu
altzariak**

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE

Vegasa®



non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/23 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 24 ERREPORTAIA:** "Erlijioa bai, erlijioa ez", gai korapilatsua, aspaldikoa baina beti gaurkoa.
Pello Apezetxea
-
- 26 ELKARRIZKETA:** Juan Oronoz: "Problema dexente izanen dute HB eta UILk alkatetzarako kandidatua erabakitzen".
Joxemanuel Irigoien
-
- 28 KIROLAK:** "Zenbait Herri Kirol txapelketetan izen emateko epeak bukatzeaz daude".
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.000 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Patxi Petrirena, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldúa Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzak... **Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati) ***ttipi-ttapa*** aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061
OSASUN ZENTRUAK
 Elizondo.....452367 / 580235
 Doneztebe450300
 Lesaka.....637428/637336
 Leitza510248/510573

KONTSULTAK
 Arizkun453039
 Gartzain580451
 Oronotz-Mugaire592024
 Ituren450183
 Sunbilla450283
 Goizueta514067
 Igantzi637755
 Arantza634131
 Bera.....630929 / 630036
 Etxalar.....635105
 Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK
 Irun630264/621106

OSPITALEAK
 Irungo ospitalea614600
 Nafarroako ospitalea.....102100
 SSko urgentzi zerbitzua246750
 Virgen del Camino
 erresidentzia109400
 Gurutze Gorria.....226404

ANBULANTZIAK
 Oitz450242/450342

DYA
 Lesaka (larrialdia).....(943)464622
 Doneztebe (larrialdia).....171717

FUNERARIA
 Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK
 Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK
 Bidasotarra630279
 Baztanesa580129
 Leitزارan515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:
 Elizondo580730
 Lesaka637154
 Bera630261

ABERIAK:
 Iberduero450335/450336

Botikak

- ▶ **Apirilaren 4-5ean**, Etxalar, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).
- ▶ **Apirilaren 11-12an** Bera, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).
- ▶ **Apirilaren 16an** Etxalar, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).
- ▶ **Apirilaren 17an** Lesaka, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).
- ▶ **Apirilaren 18-19an** Arantza, Narbarte eta F. Lezaun (Elizondo).
- ▶ **Apirilaren 20an** Arantza, Narbarte eta F. Iturralde (Elizondo).

Deialdiak

- ▶ **LESAKA**, apirilaren 3an, Euskara Batzordearen bilera.
- ▶ **IGANTZI**, apirilaren 3an, Euskara Batzordearen bilera.
- ▶ **ETXALAR**, apirilaren 7an, Euskara Batzordearen bilera.
- ▶ **ARANTZA**, apirilaren 9an, Euskara Batzordearen bilera.
- ▶ **BERA**, apirilaren 14ean, Euskara Batzordearen bilera.
- ▶ **ETXALAR**, apirilaren 23an, Bortzirietako Eusk. Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

Dantzaldiak

- ▶ **LESAKA**, apirilaren 5ean **BASAKABI**, apirilaren 12an **IZADI** eta apirilaren 19an **MINXORIAK**.
- ▶ **GOIZUETA**, apirilaren 11an, **EGAN**.

Bertsoak

- ▶ **BERA**, apirilaren 12an, arratsaldeko 6etan Kultur Etxean, bertso saioa, **IKA**, Gure Txokoa eta Udal Kultur Batzordeak antolatuturik.
- Bertsolariak:** M. Arozena, E. Alkhat, X. Lizaso, Peñagarikano, Mañukorta, J. Sarasua eta J. Sorozabal.

Bota bertsoa



Bittor ELIZAGOIEN

Gaia: Udaberriko elurra
Doinua: Aita izana...

Aspaldi hontan beltz beltza zegon mendi gaineko gailurra izotz haundien ondorioz larrea ximur ximurra hainbat iturrik lehortu eta egin digute agurra basamortua heldu ote zen ia bagendun beldurra bihotz bihotzez ongi etorri udaberriko elurra (bis).

Elur txuria helduko al da ari ginaden esaten naturak eman ezean zaila nola dugun hemen jaten amarik ez dan etxean ez da inoiz haurrikan izaten elur gabeko urteak berriz ez du fruturik ematen elurrai esker nekazariak salbatuko dira aurten (bis).

AGENDA

Zinema k

▶ DONEZTEBE

Apirilaren 4-5ean,
"El principiante".

Apirilaren 11-12an,
"La hoguera de las vanidades".

Apirilaren 18-19an,
"Despertares".

▶ LEITZA

Apirilaren 3an,
gaueko 10,30etan "El rey pasmado".

Apirilaren 5an,
arratsaldeko 5etan eta
8etan "Solo en casa".

Apirilaren 10ean,
10,30etan, "Thelma and
Louise".

Apirilaren 12an,
5etan "Bingo" eta 8etan
"Thelma and Louise".

Apirilaren 19an,
Tetan, "Marcelino pan y
vino".

Apirilaren 20an,
Tetan, "La pequeña pí-
cara".

Gastronomia

FABES

Osagaiak

4 lagunendako:

Kilo bat ilar xuriak "fabes",
300 gr. urdaia, 250 gr. txo-
rinoa, odolki bat eta zerria-
ren "brazuelo" a.

24 orduz ilar txuriak (fabeak)
uretan paratu. Suan paratu
zeuden urarekin, honek
illarren gainetik behatz bat



Carmen Garciak emana

La ASTURIANA - ELIZONDO

eduki behar duelarik, ez
gutxiago ez gehiago eta

ezari - ezarian utzi irakin
arte.

Orduan bertze osagai guz-
tiak (zerriaren puxkak)
erantsiko ditugu, eta hiru
ordu ondoren eginak ego-
nen dira (poliki - poliki
egosi).

Zerbitzatzeko orduan, ba-
ratzuriarekin egindako so-
frito bat bota behar zaio
gainetik.

On egin!

Baserriko feria



▶ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 ki-
lokoa): 7.600 pzta. **Zerri
gizena** (95-100): 177 pzta/
kilo **Zerramak**: 105 -125
pzta./kilo bizirik.

▶ BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....530
1.koa.....490
2.koa.....440

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal

Extra.....545
1.koa.....505
2.koa.....455
Oharra: Prezio hauek 300-
340 Kg. kanalean dauzka-
ten idixko eta 200-250 Kg.
dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 320
Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri
ona: 380 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 8.000
eta idixkoak 18.000 -
19.000Pzta.

Mestizoak: urruxak 26.000
eta idixkoak 37.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza» Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

❖ Zure ingurua klase guzitako
insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma,
kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu
nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

Tfnoa: (948) 63 01 55 - BERA

Diversey

Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan

Tfnoa: (948) 63 01 55 BERA



Mutiko - Mack
Argazkilaria

- ▶ **Non jaten duzu hobe, Baztanen ala Malerrekan?** Baztanen haragia, Malerrekan ardoa.
- ▶ **Tripasaia ala tuku-tuku?** Lehen tuku-tuku, orain tripasaia.
- ▶ **Kirola ala besta egin?** Kirola egiten dudala erran eta besta egin.
- ▶ **Bordatxoko giroa ala ostatuetakoa?** Ostatuetakoa.
- ▶ **Bezeroak, baserritarrak ala karrikarrik?** Baserritarrak.
- ▶ **Jende gazte ala zaharra?** Zaharrak, gaztetu egiten ditudalako.
- ▶ **Lana estudioan ala kanpo erreportaiak?** Kanpo erreportaiak, "abenturak" gertatzen ahal direlako.
- ▶ **Argazkigintzan ohituak ala ez?** Jende sentzilloa.
- ▶ **Bideoa ala argazkia?** Argazkia.
- ▶ **Zer botatzen duzu faltan Donezteben?** Hemen egon beharreko institutua.
- ▶ **Zein izan da zure markarik onena laisterka?** Ijitoen aurrean egin nuen karriera.

▶ Jugando en los campos del señor


Hector Babenco
Hiru-erlijio gizon, kultura, etika, exotismo... nahasten dira Hector Babencoren azken filma hontan. Hector Babenco berez Argentina-rra, Espainian zine munduan lan bila suerte gutirekin ibili ondoren Brasilen hasi zen serio lanean. "Pixote" izan zen bere hasierako lanik aipagarriena; merezi zituen sariak ez zizkioten eman, gai sozial gordinegiagatik. Estatu Batuetan bere argitasuna kontutan hartzeko balio izan zion filma harek. "El beso de la mujer ara-

ña" eta gero "Tallo de hierro" egin zituen.

Bere ekipoarekin Amazonas oihanera itzuli zen "Jugando en los campos del señor" egitera.

Amazonasen bizi diren jende desberdinen egoera ongi aztertzen du filma honek. Hiru koloretako elizgizonen bortxakeria eta berteen urre gosea.

Indioak bizi diren inguruetan mineral on eta urrea izaten dela, ongi dakite Amazonaseko



urre bilatzaileek. Nahasketa hau ongi lotua azaltzen digu Babencok, ongi ezagutzen baitu gaia.

Filma honek ez du merezi zuten haina fama lortu nahiz eta kritikotatik "ekologia" hitzarekin adornatu.

Oskarrik ematen diren garai honetako ez dio kalte bertzerik

egin, bertze sustantzi gabeko film batzuk jartzen bait dizkigute begi bistan.

Etnia desberdinetako indioetatik egindako filma honetan, berehala pasatzen dira irauten duen 3 ordu eta hamar minutuak.

MARIANO

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA



EUSKALDUNA
JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA



Nafarroako
Bertsolari Txapelketaren finala igande honetan (Apirilaren 5a) burutuko da Iruñeko Gaiarre antzokian, goizeko 11etatik aintzinerara. Lerro hauek idazterakoan, Sunbillako kanporaketa egin gabe badago ere, Donazarren eta Luzaiden egindako saioetan maila ona erakutsi dute bertsolariek eta Arzallusek lortu ditu puntu gehien.



Malerrekako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren iazko txostena agertu da berriki. Honen arabera, zerbitzu hau gehien eskatu dutenak adintuak izan dira eta guttienera, gazteak, haurrak eta toxikomanoak. Guztira, 1.437 kontsulta izan ziren 1991an.

Alkateek «negatibotzat» jo zituzten Alliren erranak

Martxoaren 17an bildu ziren Bertizen



Eskualdeko alkateek "negatibotzat" jo zituzten Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuako lehendakariak martxoaren 17an Bertitzen beraiekin izandako bileran egindako adierazpenak. Lehendakariak erran zuenez, aurtengo aurrekontuetan ez dago inolako dirutzarik Belateko tunelarentzat (bertan peajea paratu daitekela ere aipatu zuen) eta hemendik aintzinerara "Udal bakoitzak inber-

tsioak ordaintzeko ahaleginak" egin beharko omen dituzte. Horrela, nahiz eta hainbat udaletan «Lekuko Finantzen» dirutzaren haunditzea eskatzen zuen HBren mozioa onartu, Nafarroako Gobernuak ez du aurrekontuetan inolako igoerarik egingen sail horretan. Bertze gaien artean, Dantxarinearako bidez, Bera eta Lesakako industrialdeetaz eta etorkizun industrialari buruz aritu ziren.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



ZUBIETAKO EZTABAIDARI BURUZ

Arrazoiak alde guztietan izaten dira eta ikusten dira eta nik ere badut nire arrazoa botatzeko gogoia.

Garbitzailearen kontu honekin niri beti burutara etortzen zaidan pentsamentua zera da: hor azpian soldata bat dagoela eta diru horren beharrea nor ote dagoen.

Nik botoa behar-tuenaren alde botako nuen, ez litzaidake hainbeste inportako ez kalitatea ez subastako zenbakia. Ustedut denok dakigula

Zubietako familia bakoitzaren berri eta badakigu horregatik nork beharko lukeen diru pixka bat gehiago egunek ekartzen duten jan eta jantzi beharri aurre egiteko.

Hiru emakume presentatu ziren: bat neska zen, beste batek haur bat zuen eta hirugarrenak hiru haur zituen eta etxean inork lanik ez. Horrelako egoeraren aintzinean niri atzentzen zaizkit segitun kalitateak, subastak, Herri taldetarrak eta

Iramenditarrak.

Herrian horreinen haur gutxi izaki eta dituenari ez diogu lagundu behar ba? Herriko lokalak ez dira deustarako herritarrik gabe. Asko inportatzaigu guri sekretarioaren aukiarren brilloa!

Eta ez banengo kontent zerbaitekin, mintzatuz konponduko nintzen, jakin behar da jendeari barkatzen. Zazpi al-

diz zazpi barkatu behar omen da ongi egitekotan. Uste nuen Zubietarrak jitoak deitzen gntuztela, ez bakarrik nahiko trasteak garelakoz, elkar defendatzen badakigulakoz eta beti elkarren arrimoan aurrera atera garelakoz

baita ere, gutxiena duenari lagunduz.



Jito batek
Zubieta

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

25 kg. pintura erosteagatik kamiseta bat oparizat

Eztegara 19 - 63 02 40 ☎ - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

Udalak erantzun dio AHVko Sindikal Batzordeari

Alkatearen kalitatezko botoa eta EAKoen boto aldaketa gauzarik aipagarrienak

ROMAN HARRIBILAGA

Altzairutegi txiki baten eraikitzea dela eta, AHVko Sindikal Batzordearen eskariari erantzunez, Herrialde udal taldearen 5 botoez, kontrako bertzeko 5ekin, -EAKo 3 (Agerri, Senper eta Portu), HBko 2ekin batera, EAKo Irazoki abstentitu baitzen-, altzairutegi txiki bat alderdi honetan paratzeko eskaria berretsi egin da osoko bilkuran, arrazoi berberak erabiliz. Dena den, erabakian bi gauza izan dira aipagarri. Alde batetik, botaketan 5 bototara berdineko emaitza izan dela, EAK gai berean aintzineko osoko bilkuran abstentzioaren aldeko jarrerara gogortu egin baitu, aurka agertuz eta HBrekin bat eginez. Ondorioz eta bere taldearen eritzia aintzinerara ateratu asmoz, Alka-



Hauexek dira Gure Txokoaren I Haur Marrazki eta Margo Lehiaketan sarituak suertatu ziren 12 lan hobereenen egileak

teak kalitatezko botoa erabili behar izan du.

Azkenik, Parlamentuan 1992 Aurrekontu Orokorren proiektua eztabaidatzeaz dagoenez gero, Udal Batzorde bat eratzeko erabakia hartu da, Herrilan, Garraio eta Komunikabide Sailak N-121-A errepidea moldatzeko aurrikusi duen 1.000 milioiko dirutza 1.500 milioitan gutxienez gehi dezan eta Bera, Le-

saka, Elgorriaga, Doneztebe, Baztan eta Zugarramurdiko udalek eratzten duten Batzordearen esku utzi, aurreko puntuko edukina Aurrekontu horretan bildurik gera dadin.

Polikiroldegirako zolarako

"DESCOL" enpresak paratuko duen "Pulastic 2.000" izeneko materialea hautatu du udalbatzak.

Horretarako, 8.110.125ko aurrekontua ere onartu izan da, 240.000 pzta erantsiz pista markatzeko.

Altzaten ere bestak nahi

Datorren ekainean ospatuko dira San Antonioren ohoretan, bizilagunen eskaria udalak baimendu ondoren. Egitarauaz gain dirua bildu asmoz lehenago antolatuko diren ikuskinak zehaztu gabe gelditzen dira bakarrik.

Errepidea moldatzeko eskaria

Herria zeharkatu eta hirigunetik kanpo dauden errepidearen zenbait zati premiazki moldatzeko eskatu dio Udalak Iruñeko Gobernuari. Eguberrietako gauzatua egonen zela agindu zuten Iruñatik, baina hori ez da gertatu, eta moldatzen saiatu diren tokiak okerrago daude.

B RADIO BIDASOA



expert

RADIO BIDASOAk errex jartzen dizkizu gauzak:

- * Zure elektrogailua, TB, bideoa, etab, aukeratzeko laguntzen zaitugu.
- * Dohainik instalatu eta erabiltzen erakutsiko dizuegu.
- * 3 urtetarako garantia
- * Suterako eta lapurretaren aurkako aseguruua.
- * 36 hilabete bitarte dituzu ordaintzeko.

Kanttonberri 1, Tfnoa: 630377 - **BERA**

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

LESAKA

«Arte eta Kultura» egitarauak 1.205.000ko aurrekontua du

Aurtengoan, 412.500 pezetakin lagunduko du Nafarroako Gobernuak

AITOR AROZENA

Egitaraua guztiz zehaztu gabe badago ere, aurtengoan «Arte eta Kultura» programaren barnean herrian egingen diren ekitaldien aurrekontua 1.205.000 pezetakoa izanen da, 412.500 pezetakoko dirulaguntza jasoko delarik Nafarroako Gobernutik.

Ekitaldien artean, Maiatzan "Ilargi" haurrentzako antzerkia izanen da Tantirumairu ikastolak antolatuturik. Ekainaren 13an, arratsaldeko 5,30etan eta San Fermin Jubilatutako elkarretarako antolatuta "Dantza Soltuko" Binakako txapeketak egingen da Plaza Zaharrean. Irailan, "Musikildi"ko pastoralaren antzespina, Urriaren Dantzari-Txiki Eguna eta Azaroaren 25ean kantaldia izanen da, nork hartuko duen parte oraindik jakiterik ez bada ere.



Kanka rock taldeak kontzertua eskeini zuen martxoaren 26an, «Kattu» Matxinbeltzenea Euskal Etxearen ostatuan. Barnetegikoek, Matxinbeltzenean egindako argazkilaritza ikastaroa ere bukatzeaz dute.

ttipi-flash

□ 2.754 biztanle ginen herrian urte hasieran, iaz baino 2 guttiago. Hauetatik 1.443 gizonezkoak eta 1.311 emakumezkoak. Iazkoan, 12 pertsona jaio ziren eta 17 hil, 15 lagun herrira etorri ziren bizitzera eta 17k kanpora aldegin zuten. Bertze 5ak, aintzineko zentsoan apuntatu gabe baina herrian bizi zirenak dira.

□ Tantirumairu eta Labiaga ikastolen proiektu pedagogikoa ahobatez onartu zuen Udalak. 16 urte arteko eskola herrian eta 18 bitartekoa Bortzirietan egitea ere eskatu zen, Lesakako biztanleen %27a auzo edo baserrietan bizi dela kontutan hartuz.

□ San Fermin beste buruzko bilera burutuko da apirilaren 2an (ortzeguna) arratsaldeko 7etan Herriko Etxean.

Beti Gazteren Batzar Orokorrak

...iazko kontuak azaldu zituen. Honen arabera, 51.578 pztako superabita izan da, 5.670.265 diru sarreretan eta 5.618.687 gastuetan. Lehendakaritza, Del Riok jarraituko du eta gaur egun dauden sozioak 560 dira. Aurtengoan, Mendi eta Herri Kirol sailak ere izanen dira.

Lekuko Finantzen

...dirutzaren haunditzea eskatzen zuen HBren mozioa ez zen onartu PNVren aurkako 6 botoekin eta HB (3) eta EA (2) aldekoekin. Mozioak, Udalen egonkortasun ekonomikoa bilatzen zuen, baina PNVk "gai hau tratatzeko leku egokia Parlamentua da eta ez Herriko Etxea" adierazi zuen.

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA


GOIZUETA
KIROLAK
Kirolak
Mendirako artikulak
Beheko Plaza 10 LESAKA

XATURETXEA
FONDA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

EROSLE
Tfnoa: 63 72 64 - LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago

Mendietako kontseilaria, Perez Lapazaran, Etxalarrera

89ko suteen ondorioz, Bortziriak eta Berroarango mendietako lanetaz solastera

PELLO APEZETXEA

Apirilaren lehen hamabortzaldirako du agindua bisitaldia Nekazaritza eta Mendietako Kontseilariak, Berroaran (Narbarte, Doneztebe, Elgorriaga eta Sunbilla) eta Bortziriako Udalek eskatutako bilera burutzeraz. Etxalarko Herriko Etxean zebratuko den bilera honetan, duela bi urteko sutearen ondoriozko birlandaketa lanak nola doazen ikusiko dute, oihanaren hobekuntza eta "prozesionaria" izeneko harraz ere solastuko direlarik.

Oihantzantza proiektua

Ondoko bizpahiru ur-

Ardi emankorra Bereko-zubikoa. Zazpi urtez, urteko 2 ume eman ditu, banazbertze. Azkene-koan 3. Amak berak hazi ditu eta ez gaizki: 26 egunen buruan ia hamarna kiloko pisua zuten.



tez burutuko den lanaren proiektua xehetzen ari da Nafarroako Gobernu Udalarekin batera; landaketa berriak, lehenagoko landaketen hutsak betetzea, zerrakurak eta bazkalekuak prestatzea edo hobetzea da

proiektuaren edukia. Xehetasun batzuk aintzineratuz, Irumuga eremuan 11 hektarea plantatuko dira, bertze 6 Ha. osotu eta zerrakurak. Irusasi eremuan 12 hektareatan landak sartuko dira, 6 hektareatan

bazkalekuak hobetuz. Zentinelan 70 Ha.tako plantazioa egingen da eta 30etako bazkalekuaren hobekuntza. Unanegi eremuan 28 hektareatan landaketa. Zimeldin 22 hektareatako plantazioa eta zerrakura. Egillunen, berriz, 3 hektareatako landaketa, gehi 9tako bazkalekuak hobetzea. Bazkaleku ondoan ur askak eta urtegiak –ur deposituak–, mila litro ingurukoak, egingen dira, azien-dak edateaz gainera suterik gertatuz gero balioko luketenak.

Pinadi salmenta

7.000 insignis pinu salduko dira Zimeldialdean, 15.716.000 pezetatan baloratuak.

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

«U S O A»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

ALBERTETXEA JATETXEA

Alicia eta Carmenek zuzendua
Apirilaren 5ean, 6etan inaugurazioa

Antoiu 26 - LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

KOXXKONTA



Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

Sagardotegia Erretegia

Ezkontza, bataio, bileratarako leku egokia (200 pertsona)



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

IRAGARKI HAU 5.000 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZTATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

IGANTZI

Errolda edo padroiaren arabera 591 igantziar aurten

Urte hau, iaz tenore berean zegoen kopuru berdinarekin hasi dugu

OSKAR TXOPERENA

Azkeneko urte honetan ez du aldaketarik izan padroiak igantziarren kopuruari dagokionez: 591 gara orain ere, 9 alta eta 9 baja izan baitira.

Halere, bada datu bat aldatu dena: gizonezkoak 305 gara, iaz baino bat guttiago; emakumezkoak, berriz, 286 dira, iaz baino bat gehiago.

Telefonikaren erantzuna

Udalak kabinak paratzeko egin zuen eskaerari erantzun dio Telefonikak. Eurek egindako kalkulu baten arabera ez omen da errentagarria beraiantzat



Apirilaren 8an edo 9an agertuko da TVE'n Lupe Zubeldia, "No te rias que es peor" programan. Sari bikainak ekarri omen zituen grabatutako egunean, baina jakiteko hobe duzue ikustea

Argazkia: KARMELE

Igantzin kabinak paratzea. Baina, aukera bat ematen dute: Udalak bere gain har ditzala kabinen jabegoa, garbitasuna eta mantentimendua, irabazien %35a beretzat izanzen delarik.

Telefonikakoek beti hogeitameka eskutik dutela jokatzeko izaten dute gogoko.

Enterradorea bilaka

Orain arte enterradorea lana betetzen zuenak uztea

erabaki duenez, agiri bat zabaldu du udalak lan hori betetzea interesgarri iruditzen zaion edonorentzat. Horretarako eskaera lehenbailehen Herriko Etxean aurkeztuko behar da.

Plantak sartzeko dirulaguntzak

Aintzineko alean mendietako laguntzen berri ematen genuen egun zehatza aipatu gabe. Eguna dagoeneko erabakia dago, apirilaren 6a, goizez.

Eraman beharreko paperak hauek dituzue: eskriturak, plantatzeko Udalbaimena, NIF delakoa, plantazioaren datuak eta bankuko kontuaren zenbakia

BOAN TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
 KOTXE BERRIEN
 ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 Herriko Etxeko Plaza - BERA

ALICIA
JANARIDENDA
 Foruen Plaza 6, Tfnoa: 630799
 BERA

LAINO
 HAUR JANTZIAK
 OINETAKOAK
 ETXERAKO ZAPATILAK
 San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

GOYA
 JOSTAILUAK
 JANTZIGINTZA
 OPARIAK
 BURDIN TRESNERIA
 Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

BORTZIRI
 Itzea 4, behea - BERA
 Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satelite bidezko antenak ere paratzen ditugu

EKAITZA CAFE
 GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia 

Tfa: 948 - 627547
 Plaza Berria 13 - LESAKA

ETXEGARAI
 BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
 Antena kolektiboak eta banakakoak
 Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

Gazteek hasiera ona eman zioten Herri Kirol txapelketari

Ttikienak lehenengoak sailkatu ziren, kadeteak, berriz, laugarren

JON LARRETXEA

Martxoaren 22an, Sunbillako pilotalekuan eman zitzaion hasiera Nafarroako Herri Kirol txapelketari, hasiera ederra eman ziotelarik Aranaztarrak.

Bortz taldek jokatu zuten elkarren aurka, Arantza, Basaburua, Labaien, Bera eta Sunbilla.

Lehen erran bezala gazteenetan Aranztarrak gelditu ziren lehendabiziko, kadetetan berriz, azken aurrekoak; hala ere erran beharra dago Arantzako enkipodena neskez osatua zegoela, bertze guztiak neska mutikoz osatuak zeudelarik. Beraz,



Arantzako neskek adore ederra erakutsi zuten mutilen kontra ere ez bait ziren azkeneko gelditu



Alebinak ezin hobe hasi zuten txapelketa, lehenengoak sailkatuz

adore dexentea erakutsi zuten Arantzako neskek.

726 biztanle

Datua urte hasierakoa da, eta Udal-eroldaren arabera 406 gizonetako eta 320 emakumezko gaude guztira herrian inskriba-

tuak. Joan den urtean 4 hildako eta bertze 4 jaiotza izan ziren, beraz, enpate.

Okerrak zuzendu

Orain dela bi ale eskola kontseiluaren osaketaren berri ematen nuen eta lehengoan berriz, honek

presentatutako mozioaren berri.

Bainan datu hoiak ez dagozkio eskola kontseiluari, Guraso elkarteari baizik. Beraz, sortu berria dena Guraso Elkarte da.

SAROBÉ
okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - BERA



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERA, 631238 Tfnoan, Agerra Industrialdean



**ARANTZAKO
ARAU
SUBSIDIARIOEN
HASIERAKO
ONSPENA**

Arantzako Udalak, 1992ko urtarrilaren 31an egindako Osoko Bilkuran, Arantzako Arau Subsidiarioen proiektoren hasierako Onespina onetsi zuen.

Hasierako Onespeneren erabaki hau, Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara eta Udaletxeko Iragarki Oholean paratuko da, bizilagun edo interesatuek espedienteaz aztertu eta egoki erizten dituzten erreklamazioak egin ahal ditzaten, argitarapenetik hilabete bateko epearen barruan.

SARA

Ihiztariak garaile hauteskundeetan


Halere, abertzaleak goraka egin dute hirugarren indarra bihurtuz

OLHAIN ELKARTEA

Eskualdetako hauteskunde hauetan 1.601 ziren bozak emaitzeko gai zirenak eta bakarrik 973k parte hartu zuten, %61a. Bertzalde, emaitzen xehetasunak parean dituzue.

Olhain elkartearen bilkura nagusia

Martxoaren 20an iragan zen. Arduradunek garbiki orhoitarazi dute elkartearen helburu nagusia dela ikastolen sustengatzea, bai Herri Urrats gauaren bidez, baita berriki Xalbador Ikastegiari (2. maila) 20.000 liberako dirulaguntza eskainiz. Karia hortarat, elkarteko kide batzuek bisita egin dute Kanborat. Denbora berean preziatu



Abertzaleek goraka egin dute Saran eta baita eskualde mailan ere. Saran hirugarren indarra ditugu eta azken hauteskundeetatik honat emaitzak hobetu dituzte.

ahal izan dute han egiten den lan baliosa, baita ofiziale, laguntzaile eta gurasoek zer lan daramaten ikastetxearen haunditzeko. Gogotik sustengatzen segituko dugu, bide hortarik baita gure hizkuntzaren geroa. Bertzalde erabakia izan da elkartearen barnean azpitalde baten sortzea gau-

pasen antolatzeko. Hauek, heldu den apirilaren 30ean iraganen dira: ZARAMA eta MINXORIAK taldeekin; maiatzaren 9an, Herri Urrats Gaua, Ruper ORDORIKA eta HERTZAINAK taldearekin.

Beti Gazte

(Manex Bergararen hitza). Beti Gazte, Sarako

adinekoen bilkura nagusia ginuen martxoaren 18an San Inazion. 132 lagun, Herriko auzapeza eta erretora barne elgarretaratu gare egun ezin ederragoa pasatuz, bazkari, kanta, pertsu, dantza eta espantu frankorekin. Eskerrik beroenak parte hartu dutenei eta bertzaldi bat arte.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

IRURIBIETA

OSTATU JATETXEA

Irun-Iruñea Bidea, 61,5 Kma., Tfnoa:450399 - SUNBILLA

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE



AMEZTIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

Haurren Herri Kirolak jokatu ziren Martxoaren 22an

Sunbildarrak, sokatiran bigarrenak eta konbinatuan, infantilak 2. eta kadeteak 3.

IOSUNE ETXEBESTE

Martxoaren 22an ospatu zen Sunbillan II. Infantil eta kadeteen Herri Kirol txapelketaren kanporaketa.

10,30etan hasi zen saioa, proba konbinatuarekin. Lehenik infantilak lehiatu ziren, sunbildarrak bigarren postuan geldituz eta ondoren kadeteak, hirugarrenak gelditu ziren. Sokatiran berriz, sunbildarrak bigarren gelditu ziren tiraldien denboragatik.

Erran beharra dago jende gutxi etorri zela, bainan giro ona egon zen herriko trikitixak alaituz.



Lopez Borderias kontseilariak tuneleko obrak bisitatu zituen

ONDIKOL

Trenbidearen inaugurazioa

Apirilaren 8an, Nafa-

rroako Gobernuko bize-presidentea den Miguel Sanz Sunbillara etorriko da trenbidea inauguratzera.

Leku-Eder karrikan zinta bat moztuko du eta herriko txistulariek zenbait pieza eskeiniko dituzte.

☐ **703** biztanle bizi gara herrian, urte hasierako datuen arabera.

☐ **Zerbitzu** Mankomunitatearen estatutuak ahobatez onartu zituen Udalak.

☐ **Zonaldean** kotxe eta ibilgailuen inspektzioarako zentroa egitea eskatzen zuen mozioa, ahobatez onartu zuen Udalak, bere kokapenagatik zentro hau Sunbillan egon beharko lukeela gaineratuz.

BEINTZA-LABAIEN

Neskek ere taldea osatu dute

Sokatira eta proba konbinatuertarako

PATXI OTXANDORENA

entrenatzen ari baitira.

Beintzako Herri Kirol Taldeari orainarte fama eman diotenak gizonekoak izan badira ere, hemendik aurrera neskek ere horretan saiatuko dira. Izan ere, dagoeneko sokatira eta proba konbinatuertarako

Beintzako Herriko Ostatua subastara ateratzeko ideia

Herriarena den ostatu hau, lau urtero ateritzen da subastara, eta luze gabe, berriro ere subastara ateratzea tokatzen da.



Beintza-Labaiengo udala eta Principe de Vianaren artean hiru iturri zahar berrituak izan dira; horietatik bi Labainen eta bestea Beintzan.

ASKIN OSTATUA

Bokadillo eta Plater konbinatuak

Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

DONEZTEBE

Aurtengoan, udal-aurrekontua 152 milioitakoa izanen da

Kontzejal guziak konforme agertu ziren prestatutako aurrekontuekin

TXEMA ALDABE

Zehazki 152.244.203 pezetatakoa da aurtengo aurrekontua. Partidarik inportanteena, gastoen sailari dagokionez, obrëtako inbertsioek daramate 57,7 milioirekin. Sarrertan aldiz, partidarik inportanteena Diputaziotik eta sartuko diren 35,9 milioiak. Bertzalde, kontribuzioei dagokionez, Hiri Ondasunen gaineko Zerga (urbana) %6,5koa izanen da, Nekazal Lurrengatik %12a eta Haziendegatik %6a, beti ere gaur egungo baloreen gain, jakina.



Begoña Alberro dugu Malerrekako asistente soziala.

Iaz 1.437 kontsulta atenditu ziren

Malerrekako Gizarte Zerbitzura egindako kontsulta hauetatik gehienak 3

multzo hauetatik etorri ziren: 628 adintuak; 274 kontsulta Seguritate Sozialari zuzendutako eskabideekin eta 253 elbarri-

tuen arazoekin. Bertzalde, kontsulta gutxien sortu dituzten multzoak haur, gazte, gutxiengo etnikoak eta toxikomania ingurukoak izan dira. Herrika begirata, berriz, batzuetan ez dago ezberdintasun handiegirik zerbitzu honen aprobetxamenduan.

17 laguni atenditzen zaie etxean

Malerreka osorako lan horretan ari direnak Arrosatxo Ibarra eta Ramoni Ordoki dira. Hamazazpi horietatik gehienak bere gisa moldatzeko ezinduak daudenak dira.

NARBARTE

Azkeneko bi urteotako ur-arazoak moldatu nahian

Narbarteko kontzejuak ur-ekarrera berria egin nahi du behingoz Zeberiko errekatik

Pentsatu denaren arabera, Zeberiko errekan, Bordaundi ondoan bi iturritatik hartu eta 5 Km.tako tuberiak sartu ondoren Narbarte, Oieregi, Legasa eta Mugaire edateko urez hornitu nahi dira. Obra guzia egitea 64 milioi kostako litzateke eta Nafarroko Gobernuak %90a suben-

tzionatuko luke. Halere, horretan hasi aintzinetik "Confederación de Aguas del Norte"tik beharrezkoa den baimena eskuratu beharra dago eta aurkeztu diren zenbait alegazio ere moldatu. Ahal balitz, obra subastan ateri eta aurtengitea litzateke kontzejuko arduradunen intentzioa.

Azkeneko urteotan, udaldeko lehorteak direla eta, zisternekin ur-garraioan ibili beharra izan dute Narbartekoek.



Estilo propioz egindako arropak

San Migel auzoa 27, 45 08 83 - DONEZTEBE

Arropak

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezitia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

Ibilgailuen inspezioa eskualdean egitea eskatu du Udalak

Modu horretara, ez litzateke Iruñe edota Donostialdera joan beharrik izanen

IBAN ISASI

Inguru honetako bertze udal gehienetan bezala, Iturenen ere onartu da baita Doneztebe eta Lesakako Udalek zentzu horretan bidalitako mozioa. Bertan, ibilgailuen errebisioa pasatu ahal izateko eskualdean bertan horretarako lantegia sortzea eskatzen da.

Iñauterietan...

sobratutako haragiarekin Iñauterietan sobratu-



tako haragia aprobetxatzeko, joan den martxoaren

21ean, Herriko Ostatuan, afari eta besta polita anto-

latu zen. Afalondoan dantzaldia izan zen Kristianen eskutik.

Maika Ariztegi marka ezarri

Ordu bat 11 minutu eta 49 segundotan egin zuen neska honek Iturengo plazatik aterita Mendaurreraino joan etorria. Marka honek argi erakusten du nekasa honen egoera bikaina.


Mendaurrerainoko joan etorrian marka jartzen duen lehen emakumezko dugu Maika Ariztegi.

JUAINAS

Azken jaio berriak, Biolur Navarrakoaren hitzaldiak eta pisten konponketak osatzen dute ale honetako berriak, besterik ez bada alorra agort ez dadin.

Ibai izanen du izena, momentuz eta gurasoek eritiz ez badire aldatzen. Koteto eta Mattanek ekarri dute, 24ean, kontent aski direlarik. Zorionak!

Pistena hasiera omen dugu, toki traketsenetan "todouno" botiaz momen-



Kalitatezko barazkiek ba omen dute merkaturik

tukoa konpondurik. Orain, geroko, moldaketa serioaren plangintza dator, negoziazioa eta gauzatzea.

Hitzaldiarena hasiera izan zen, baita ere, ia norbaitek hortik abiatzeko animorik lortzen zuen.

Jende aunitz agertu ez bazen ere, buila galanta ateragenuen, nekazaritzatik hemen bizitzerik dagoen ala ez eztabaidatzerakoan. Ez zen batere garbi gelditu, kolore guztietako opinioak bait zeuden. Joxe

Urangak, dena den, berean mantendu zen: posible dela, baietz, joratu behar dela gauza guztiak bezala, baina ba omen dago merkaturia, kalitatezko janaria garestiago erosteko prest den jendea bai Irunen, Donostian eta Iruñean nahikoa dela, egin behar!

Bakarren batek gehiago jakin nahiko balu badira txartelak, propaganda, aldizkariak eta, batez ere, Joxe Uranga etorriko dela nahi hainbeste... zuen eskuetan!

ZUBIETA

**BEINTZAko
OSTATUA**

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

Mari Cruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

IRAGARKI HAU 5.000 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

Zinea: Pelikula ikusgarriak, lan ikusgarria

Azken txanpa maiatzaren 31 bitarte luzatuko da

ANTTON ERKIZIA

Bakoitzari berea: lan bikaina ari dira burutzen Leitzeko zinearekin. Hasi baziren hasi, lokala bera aldealdera ezarri eta pelikula sail ederra ari da pasatzen Leitzatik. "Moda" honek gutxi iraungo zuelakoan zeuden batzuk, baina hortxe diraute lanean, jo eta ke. Astebukaeratan badugu horri esker, denborapasa on bat, gainera kultur munduarekin lotua eta epel epel.

Oraintxe hasten dute negu hontako azken "txanpa". Eta begira zer

nolako pelikulak dakartzkiten: *El rey pasmado*, *Terminator 2*, *JFK*, *Marcelino pan y vino* (bertsio berria), *Dos duros sobre ruedas*, *Thelma & Louise*, *Delicatessen*...

Pelikula ikusgarriak, bertatik bertara. Eta horren atzetik, lan ikusgarria gazte talde hori burutzen ari dena, astero astero.

Udaletxeak irakitten...

segitzen du. Eta punta puntako gaia da. Baina hobe izanen da oraingoan deus ez aipatzea hortaz. Muxu truk ari gara lanean, eta esker txarrak hartzeko gogorik batere ez dugu.



ANTTON

Oso ona Sozio-linguistika ikastaroak...

jasotzen ari duen erantzuna. Berrogei lagunetik gora ibili da ilunabarrez klasetan. Eta egun berezi

batzutan (adibidez, Txillardegik eman zuen egunean), 70-80 lagun!

Ona, oso ona, Txepillo.



Hara bada, nahiko euri eta nahiko elur!

Horrelako batean, Leitza zuri zuri ikus izan dugu, eta zer esanik ez, mendi, mendate eta Goiko-gainan. Udaberria hasi eta gero, urteroko ohiturari jarraituz...

Beharra bazegoen. Orain ikusiko dugu noiz atertuko duen.



Aienea baserrian, naturalezak aldrebeskeria txiki bat burutu nahi izan du: bost ankako axuria umatu du ardi batek. Bostgarren anka hori, bi muturrekoa gainera. Hortaz aparte, axuria sano aski dabil, lau anka gainean, bostgarrena juegorik gabekoa bait du. Bere burua zakar antxa ikusiko zuen axuriak, eta ezetz, ez zela **ttipittaparen** argazkian aterako... Argazkirik egitekotan, etxeakoandreak estu heldu behar izan zuen axuri aldrebesa.

Goi mailako pilotaririk ez aurtengo txapelketan

Lehen aldiz antolatu den "pilota goxo" modalitatea da arrakastarik haundiena izan duena

ESTEBAN AROZENA

Umore Onaren antolakuntzapean hasi berria den pilota txapelketaren edizioak ez du goi mailako jokalarien partaidetzarik izanen haundien kategorian behintzat, jubenil, kadete eta infantilen zerrendan, kanpotar ezagunak azaltzen badira ere Goizueta-rrekin batera. Erantzun ikaragarria izan duena aurreko lehenengo aldiz eratu den "pilota goxo"aren modalitatea izan da, ia 30 bikote baitira horretan izena eman dutenak.

Bertso afariak

modan daudela ez dago zalantzarik, eta lekuko gure



lazkoan Goizueta izan zen Interpueblos txapelketan Txapeldun aterazena

herria har dezakegu. Duela 3 hilabete izandakoaren antzera, orain ere emakumeak ditugu antolatzaile eta apirilaren 10a da aukeratutako eguna Iñaki

Murua eta Jon Maia beretsolariekin Umore Ona elkartearen. Parte hartu nahi dutenek dei dezakete 514095ra hilaren 7 baino lehen.

W ttipi-flash

□ Euskara Zerbitzua eta Oinarrizko Zerbitzu Sozialaren aurrekontuak onartu ditu udalak; 320.000 eta 1.208.000koa bakoitza.

□ EGANekin berbena frontoian apirilaren 11an, Gipuzkoako DYAK antolatuta.

□ Goizueta-Leitzako Euskara Zerbitzuak antolatua duen Soziolinguistika Ikastaroan, apirilaren 3an Aizarnazabalgo Udal ordezkariak etorriko zaizkigu Udal-alebakarez hitzegiteko. Ondoren, Umore Onan afaria ikastaroan partaide direnekin.

ARESO

“Beltza”ren alde afaria egin zen Larrea elkartearen

Martxoaren 21ean J.J. Nieto “Beltza”ren omenez, bere lagun eta familiarekoek afaria egin zuten. Guzira 110 lagun juntatu ziren, horietatik 35 arsoarrak. Afariarekin elkar-

tasuna eta adiskidetasuna azaldu nahi izan zioten. Afal-ondorean, bere lagun batek idatzi bat irakurri zuen Beltzak Aresotarroi espetxetik bidalia. Idatzian, bere lagunari eskerrak ema-

ten ziren bere alde egin dutenagatik.

Ateratzerakoan, afaltzera agertu zirenen zenbait kotxe, faro, parabrisa eta bestelakoak hautsiak zituztela aurkitu zituzten.

110 lagun elkartu ziren Larrea elkartearen “Beltza”ren aldeko afarian



Mus Txapelketaren

afaria ospatu zen Pake Tokin. Txapelketan 9 bikotek hartu zuten parte. Irabazleak Txomin eta Bittor, partida bat bera ere galdu gabe.

BAZTAN

Lantegi berrien sortzea bultzatuko du Udalak

Interesatuak hilabete honen 25a bitarte aurkez ditzakete beren eskariak Balleko Etxean

JOSEBA

“Baztango Udala behar den laguntza eskeintzeko prest dago”. Halaxe dio Industria kontzejala den Pedro Perez Uriz-ek. Zentzu horretan, interesatuak agertuko dituzten lur-eskari eta proiektuen arabera Industrialde bat antolatu nahi da Oronotzen.

Lantegi berriak sortu eta laguntzak hartzeko, “bertako produktuen transformazioara eta momentuz ez dauden zerbitzuak sortzera” bideratutako proiektuek lehenasuna izanen dute. Aldiberean, proiektu horien txosten edo memoriak egiterakoan interesatuak behar dituzten aholku teknikoak ere emateko prest agertu da Udala.

Arau Subsidiarioak

Baztan eta Nafarroako Gobernuak Norma Subsidiarioen interpretazioak aldatu egin dituzte, adostasunerira iritsiz. Hau dela eta eztabaida gogorra izan da Udalan, UB eta bertzeen artean. Ondorioz Udalak erabaki du lurraren espekulazioa moztu egin behar dela. Elizondo Irurita eta



Nafarroako Gobernuak eta Baztango Udalak konbenioa sinatu dute Lekarozko polikiroldegia, futbol zelaia eta pizsinaren erabiltzenerako, baita Mugairen zegoen liburutegia Lekarotzera pasatzeko

Oronozen obrak geldituak zeuden Normen interpretazioa zela medio. Orain obra hauek aurrera jarraituko dute.

Elizondoko plaza

...berritzeko asmoa du Udalak. Lehenago egin dauden 7 proiektuetatik edo beste ideia batzutatik aukeratzeko eskubidea lutzatuko da Elizondotarren artean. Nafarroako Gobernuak ez du laguntzarik emanen eta INEMen bitartez egitea pentsatu da. Hara nola, hargin, igeltsero, zurgin eskola bat antolatuz. 3 urte iraungo lukeen ikasketak batetan, ikasleek izanen li-

rateke egin beharreko obra hori eginen luketenak.

Kooperatiba

...Baztandarran egiten ari diren pabeloi berriaren obrak amaitzear daude eta inaugurazioa ere laister egitea espero dute.

Ikastolan

...sarrera berritu, kirol gela eta sikologoarendako bulego bat egiten ari dira. 3 milioitako dirutza.

Konzentrazioko

...frontoian, argiak, teilatua berritzea eta itxia, 8 milioitako aurrekontua izanen du. Bertze obra batzutarako ere milioi bateko aurrekontua dago.

W ttipi-flash

□ **Cafe Teatro** saioak prestatu ditu ortziraletarako Baztango Kultur Zerbitzuak. Apirilaren 3an, «Karrika Ostatuan» “*Malo malisimo*” lana eskeiniko du Donald Lehn amerikarrak. Apirilaren 10ean «Saioa»n “*Farirorafairo*” lana. 24ean “Club Deportivo Baztan»en ostatuan “*Lourviers presenta Lourviers*” izeneko sketch-ak, eta maiatzaren leian, «Sobrino Ostatuan» Jordi Bertran marionetista ariko da. Saio guztiak 9,30etan izanen dira.

□ **Presupuestoetan** Herriko Etxeen parte hartze haundiagoa eta Kultur, Kirol eta Euskara zerbitzuak mantentzea eskatzen zuten HBren mozioak ahobatez onartu ziren.

□ **Bertizko** kontorsioa indartzearen alde eta parte hartu nahi duten Udal guztiak bertan sartzearen alde agertu zen Udala, PSOEren mozioa onartuz.

□ **ETBren** ikusmena hobetzea eskatzen zuen UBren mozioa ahobatez onartua izan zen.



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnua.: 580 445 - ELIZONDO



IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnua.: 580939
ELIZONDO

**Udaberriko telak
eta arropak**

Bukatu dira obra guziak

Lasaitasuna itzuli da karriketara

MARGARI eta KORO

Aleluya! Bukatu dira azkenean herriko obra guziak. Orain lasai ibiliko gara karriketan, muturrez pala bat aurkitzeko beldurrik gabe; kanposainduko inguruak galdu du harrobi itxura; bukatu dira lohiak... Aleluya!

Azkeneko lanak lehen-go iturriak konpontzea eta bertze hiru berri egitea (Martinea, Plaza eta eskolan); aparkalekua marraztatu eta pinu batzu ingu-

ruan landatzea, eta farola berriak jartzea izan dira.

Zaborrak, zaborrontzitara!

Gan den urterarte Bi-bordetako zoko batean botatzen ziren herriko zaborrak. Berriki zaborrun-tziak jarri ziren eta toki hura lurrez estali eta etsi zen. Baina iduri du, oraindik, zenbaitzuk segitzen dutela toki bererat beren zikinke-riak botatzen. Hori dela eta, "zikinikez" dioen plaka bat jarri da. Ikusiko dugu efek-



Aparkalekua marraztatzea izan da bukatu berri den lanetariko bat.

torik egiten duen. Gauza trixtea da mendira pasaieta ateratzea eta edozein tokitan plastikoak, botoilak, latak e.a. aurkitzea. Saiatu

behar genuke denen artean bazterrak ahal bezain garbiak edukitzen.

Ez da aunitz gostatzen.

Fz
FOTO ZALDUJA

KOMUNIOAK
Kanpaina berri honetan, eskeintzen dizkizugun oroitgarrien artean baduzu non aukeratu.

Hartu ordua:
ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

EGUN HAUNDI BATETARAKO OROITGARRI ON BAT

IPARLA KIROLAK

- Kirolak orokorki
- Ekipamenduak eta trofeoak

Santiago 51 - Tfa: 58 05 85
ELIZONDO

ESTHER

LORADENDA

- Eskakizunak garaiz egitea gomendatzen dugu

Bergara auzoa, 580971-ARIZKUN

FOTO
MARRAZTATZE
ELIZONDO

Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

ARROPA DENDA

FANTXIKE
MERCERIA
JATME IRRUTIA, 29
TFNO. 5803 12
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS


Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Eta orain, zure koloretako argazkiak

ORDU BATEZ ERREBELATUAK
ditugu

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI



BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

Hemendik aintzinerat ETB 2 ere ikus daiteke


Horretarako Arrangoita mendian errepetidore berria martxan jarria da

ALIZIA OLAIZOLA

Orain arte ETBren lehen kanala zen Urdazubik ikusi ahal genuen bakarra baina duela guti, Arrangoita mendian errepetidorea martxan jarri zutenetik ETB 2a ere ikus dezakegu.

Kinto besta

Martxoaren 21ean ospatu zuten 1966-71 bitarte jaiotakoek beren kinto besta. Horren kariatara, 58 gazte bildu ziren Saratar, Zugarramurdiar eta Urdazubiarren artean. Afaria Armuan egin zen eta afa-



londonan dantzaldia izan zuten Olabideko Jose Angel akordeolariarekin.

Mus txapelketaren azken partidak

Finala apirilaren lehen

edo bigarren asteburuan izanen da seguraski. Gero afari-dantzaldia izanen da.



LIBURU BILDUMEN BANATZAILEA
IKASTOLA, ESKOLA, ELKARTE ETA
KULTUR ETXEETAKO
LIBURUTEGIAK OSATZEKO
BEHAR DIREN BILDUMAK

AMETS LIBURUAK

☎ 63 12 67 - BERA

IRAGARKI HAU 5.000 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi - ttapa ERABILIZ GERO

COMERLAV
S.L.

HEZETASUNA... komertzio, biltegi edo almatzen, etxebizitza, garaje etabarretan...

DANTHERM lehorgailu berriei esker, hezetasuna kontrolatu eta kentzea garantizatu dago.

ETXE BERRIETAN

DANTHERM lehorgailuen bitartez, etxe berrietako paretak, zolak eta tetxoen lehortze prozesua nabarmenki azkartzen da, gero, pintatu, parketa jarri edota bertzelakoak egin ahal izateko.

Salmenta eta alojera
Joaquin Beunza 10, Tfnoa: 13 15 27

IRUÑEA

G.M.G.

GAMARGA S.A.

MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK

121 errepede nazionala, Oharrizko bide-gurutzea
Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza tikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilarriak...)

EZKONTZAK

Jose M^a Telletxea Iriarte eta **M^a Lourdes Arraztoa Larregi**, Arraiotz eta Gartzaingoa, otsailaren 27an.

Manuel Olabe Oskariz eta **Virginia Lertxundi Agerre**, Elizondokoak, otsailaren 27an.

Jose Gabriel Karrikaburu Zaldua eta **M^a Coro Ripa Saldias**, Arizkun eta Iruritaikoa, martxoaren 6an.

Juan Barriola Baraibar eta **M^a Artieda Cadena**, Leitzakoak, martxoaren 28an.

Juan Bautista Lasarte Lasarte eta **M^a Zia Lekunberri**, Leitza eta Iruñekoa, martxoaren 28an.

Jose Joaquin Gonzalez Uriarte eta **M^a Carmen Irureta Nemours**, Elizondo eta Pabekoa (Frantzia), martxoaren 20an.

Ignacio Ayuso Trejo eta **M^a Carmen Iglesias Vazquez**, Irun eta Berakoa, martxoaren 21ean.

JAIOTZAK

Xuban Eugi Goñi, Elizondon, otsailaren 9an.

Blanca Molina Abad, Elizondon, martxoaren 5ean.

Jon Ibarra Villamayor, Etxalarrren, otsailaren 5ean.

Jon Irazoki Ezeiza, Elizondon, martxoaren 18an.

Ana Isabel Telletxea Iraola, Arantzan, martxoaren 16an.

Ibai Juanikorena Lakar, Zubietan, martxoaren 24ean.

HERIOTZAK

Benito Errea Garcia, Elizondon, otsailaren 16an, 77 urte.

Marcela Migelikorena Jaurena, Elizondon, otsailaren 17an, 84 urte.

Juan Bautista Cordoba Jauregi, Elizondon, otsailaren 23an, 87 urte.

M^a Sinforosa Iribarren Elizetxe, Arizkun, martxoaren 1ean, 76 urte.

Miguel Jose Aginaga Zabala, Elizondon, martxoaren 4ean, 80 urte.

Agustin Goienetxe Arretxea, Elizondon, martxoaren 14ean, 84 urte.

Elisa M^a del Pilar Moreno, Elizondon, martxoaren 16an.

Juanito Mugerza, Areson, martxoaren 14ean, 75 urte.

Miguel Otxandorena Mutuberria, Saldiasen, martxoaren 13an, 87 urte.

Fermin Estanga Elizalde, Eratsunen, martxoaren 25ean, 46 urte.

M^a Jesus Ezkurra Telletxea, Eratsunen, martxoaren 25ean, 65 urte.



KATTU OSTATUA JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua



Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 **LESAKA**

Beatriz Lurrindenda

Garantia osoko produktuak
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikulua

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

Erljioa bai, erlijioa ez

Gai korapilatsua, aspaldikoa baina beti gaurkoa

Europako mendebaldean erlijioak motel-tze prozesua eraman badu ere, ekialdean ez du bide bera eraman, nahiz eta baldintza gogorretan bizi beharra izan duen.

Erljio zaharrak eta berriak.

Iran, Argelia, Israel, Nikaragua edo Brasil gaur egungo erlijioaren eraginaren erakuskari edo muestra ditugu.

Erljioa mamiaz husturik, kanpoko agerpen eta ohitura hutsak bilakatzen dira batzutan; seinaleak, baina erran nahia galduta. Herrien kulturarekin oso lotua dago, herrien ohiturekin, aintzineko erlijio arrastorekin nahasia ere bai, herriaren norberatasunarekin bat eginik. Jendeak menperatzeko erabili dute maiz erlijioa, nahiz eta Herrien askapenerako bultzagarri ere izan den.



Urteko egun berezietan elizaratzen den jende kopuru, bertzelako igandetan baino haundiagoa da

Nahikoa ezaguna da, Estatu espainoleko Gobernu eta obispoen artean hain gatazkatsu suertatzen ari dena: eskola ordutan erlijioa irakatsi edo ez. Galdetuta, gurasoen gehiengo haundia erlijioa eskolan sartzearen alde dago. Baina ez du, bada, guraso hauek erlijioa zokoratu azken urteotan? Duela 30 urte igandetako mezatara ehuneko 90a joaten zen bezala, gaur ehuneko berrogeitamara baino gehiago ez da hurbiltzen Nafarroan; urteko egun berezietan -Eguberriak, Aste Santua, erraterako-elizaratzen den kopurua jasotzen bada ere. Hala ere, bere sinesmenaz galdetzean, % 90ak Jaun-

goikoa sinesten duela dio. Mezatara igandero hurbiltzen ez diren artean, bertalde, gehienek bataioa eta komunioa beren umeentzat eskatzen segitzen dute, baita elizaz ezkontzea ere. Hileta elizkizuna zer erranik ez, beraietara inoiz baino jendetza haundiagoa biltzen dela nabaria baita. Erljio zentzua tikititu egin da? edo eta bertze neurri batzutarra egokitu?.

Erljioa lehengo denboretako oroitzapen eta hondarra?

Kandelari eguneko kandelari trumoi hotsa entzuten denean bizitu, etxe-ko atea argiziri bedeinkatuzko gurutzeaz hornitu,



Erramu igandean bedeinkatutako erramu hostoa landara eraman, lepotik santuen iduriak zintzilikatu, Kandelari bizituak hilobi gaintan jarri. Erljioa edo sorginkeria? Fedea edo ohitura?. Ala denetatik zerbait?. Bada, desagertzen ari diren gauza horietaz irri

egiten duena, baina irri egiten duen hori bera «jo egurra» erranez eta eginez ikusten dugu batzutan. Santu iduririk ez, bai ordea pizti edo urrungo eta aspaldiko erlijioetako iduriak zintzilikatu. Etxeko geletatik gurutze eta Amabirjinarren iduriak kendu, baina politikari, kantari edo kirolarienekin haiek ordeztuz. Santu berriak, idolo berriak, jainko berriak. Erlijio bat utzi, eta bertzea hartu?.

Seinaleak eta sinboloak

Jendeak elkarrekiko adierazpenak, aunitzetan hitzez baino egokiago egiten ditu seinalez eta iduriz. Zure adiskidetasunezko sentimendua agertzeko, musuak eta esku emanak aunitz solasen balioa du. Ez ikusi eta ez ukitu ezin dituen izaki eta gauzekiko harremanak, berriz, seinale eta sinbolobidez ez bada ezin ditu gauzatu. Jendearen beraren ahalmena gainditzeko duten amets eta utopiak bezala. Argia, belaunikatzea, burua makurtzea, eskuak goitiratzea, «mintzatzeko» modua da, bitartekoa, tresna azken batean, hitza bera ere tresna dugun bezala.

Tresna hori zertarako den ahantziz gero, baliogabe bihurtzen da. Zer erran nahi du zeremonian ura erabiltzeak?. Ez dakizu? Zertarako erabili orduan?. Bai, baliogabe gelditzen da, eta, aunitzetan, magikoa ere bai. Tresna

dela ahaztuz, bera bilakatzeko baitzaigu erlijioaren edukia. Eta, ondorioz, Erlijioa seinale horiek gauzatzeko bertzerik ez da, gure sentimendu, gogoak eta jokabidea alde batera utziz: «kandela biztu dut, belau-niko egondu naiz, gurutzea lepoan daramat, eta kitto, erlijioarekin kunplitu dut». Horrela, sinboloen erranahia galtzeak erlijioaren zentzua galtzera garamazki batzutan.

Erlijioa manipulatu

Ekialde hurbileko azken gerratean, Irak-eko Saddam Hussein-ek, Ala Jainkoaren izenean bereganatu nahi izan ditu arabiar guziak. Iparramerikako Bush-ek ere, ordea, gauza bera egin du, borrokarako Jaungoikoaren laguntza berekin zuela erraterakoan. Agintariek, eta nornahik ere, bere portaera justifikatzeko erabilketu du eta erabiltzen du erlijioa maiz, erlijioaren ministrariak eta berauen eginkizunak bere mesedetan kontrolatuz, ahal badu. Erlijio ministrariak, ordea, beraiek ere, erlijioaz baliatu egiten dira, behin baino gehiagotan, jendeagan duten eragina eta boterea mantentzeko. Ezkontzaren lokarriak, maitasunaren ezau-garriak izanagatik, zenbaitetan emakumea menperatzeko aitzakitarako erabili diren bezala, erlijioa ere, berez jendearen askapenerako lagungarri izan behar duena, estutasun eta morrontzarako bide



siek ere begiko ez dutelarik batzutan. Ezaguna da pentsamolde eta jokabide horretako El Salvadorreko Romero apezpikua eta jesuiten hilketa, nahiz eta ez diren horiek bakarrak hilak izan. Hain ezaguna ez dena, Ertamerika eta Hegoamerikan erlijio-

gertatu da, aunitzetan.

Erlijio askatzailea eta erlijio lo emailea

Bada Erlijioa, Herri eta gizartearen askapenaren bultzatzaile dena, Jesusen askapen berri ona adieraziz. Askapen Teologia deitzen zaio, horregatik, fede horren segitzaileek, kristauek, burututako fede gogetari; herrien eta jendeen askapena bultzatzen duelako, preziski, agintedunek maiz eraso egiten diote, Elizako arduradun nagu-

jio-sekta berriak sartzeko ahaleginetan dabiltza Estatu Batuak, kristauen eragina ttikitu asmoz. Izan ere, erlijioak badira hagitz ezberdinak, badira lo eman-garriak, jendeak eta herriak bidegabeko egoeran isilik eta geldirik egonezaten dituen. Horrelakoak dira sekta horiek. Erlijio guziei leporatu zaie eragin droga-tzaile hori, aunitzetan egia gertatu dena.

PELLO APEZETXEA

Juan Oronoz: “Problema dexente izanen dute HB eta UILk alkatetzarako kandidatua erabakitzen”

Zentsura-mozioa aterako balitz, EA prest legoke oposiziotik lan egitera

Leitzan polemika berria sortu da azken hilabete honetan.

Eusko

Alkartasunako parlamentari eta azkeneko bost urteotan Leitzeko alkatea den Juan Oronoz alkatetzatik kendua izatea eskatu zioten EAri HB, UIL eta berriki arte

EAKoa izana den Jose Luis Barberiak. Beste gauzen artean, “informazio falta eta udal-gestio presidentzialista” leporatzen diote Juan Oronozi.

EAK, bere aldetik, Juan Oronozen gestioan konfidantza osoa duela azpimarratu du prentsa bidez. Gai honetaz eta beste zenbaitetaz hitzegiteko beregana jo dugu zuzen zuzenean.



ttipi-ttapa. “Informazio falta eta udal-gestio presidentzialista” leporatuz zentsura-mozioa sartuko dizute oposiziokoek...?

ORONOZ. Hori aitzaki hutsa izan da. HBk erabiltzen duen argumentua da, justifikaziorik ez duena. Leitzeko Udal mailan Nafarroako beste edozeinetan

baino informazio gehiago eta zehatzagoa aurki dezake edonork.

Bestalde, hori bai, Udaltxean hartzen den korrespondentziaren gain kontrol zuzenagoa burutzera behartua egon naiz, ezin baita nornahik edozein informazio hartu eta nahi duen bezala, askotan

interpretazio partidistak eginez prentsara bidaltzen ibili. Halere horrek ez du esan nahi, korrespondentzia udal-batzarretan iraultzen ez denik. Bestalde, presidentzialismoa dela eta, nere kompetentzietaz aparte ez zait sekulan gusatu besteen kompetentziak oinpetan hartzea. Are ge-

hiago; nere kompetentziako diren zenbait gauzetan – fakturen aprobazioa eta... – nahiago izaten dut batzorde baten bitartez egitea. Uste dut ez dela nere estiloa presidentzialista izatea. Horrek ez du esan nahi norbait koskillak bila ari bazait aurpegia plantatuko ez diodanik.

ttipi-ttapa. Eta Barberia...?

ORNOZ. Ba... nire dimisioa eskatuz bastante esigente jarri zen, eta azkenean alderdiak erabaki zuen bere jarrera zuzentzen ez bazuen hobe zela berak dimititzea eta ez nik. Horrela, otsailaren 28an onartu zen bere dimisioa. Halere, min ematen didana zera da, zortzi urte elkarrekin lanean inolako enfrontamendurik izan gabe aritu ondoren, gauetik goizera, oportunitate bat ikusi duela eta horrela jokatzeari.

Aitzakitza Erasoteko harrobiaren zera erabili badu ere, egiazko arrazoia ez da hori. Uste dut, bere anaia – Larraungo alkatea denak – Lekunberriko alkatea den Aierdirekin duen enfrontamenduak asko eragin diola. Normala den bezala, EA n beti babestuko dugu EAko den Jose M^a Aierdi eta hori, Jose Igancio Barberiak ez du eramaten jakin izan... esan dudana bezala, bere anaia oso enfrontatua baitago Aierdirekin.

ttipi-ttapa. Zure burua oposizioan ikusten al duzu?

ORNOZ. Oposizioan



Oposizioan ez dago beti politika destruktiboa egiten ibili beharrik. Ni eta nire taldea oposizioan egon ginen denboran helburu batzu lortu genituen. Azken lau urteotan egin diren obra horiek, oposiziotik lehenoguk eskatu eta enkargatuak ziren"

egoteak ez nau ikaritzen, lehenago ere egona naiz eta. Dena dela, HB eta UI Lek elkar-hartu eta kandidatu bat beraien artean ateratzeak problema dexte izan lezakeela uste dut. Nik zera eskatuko nien, presentatu dituzela herriko lanak aurrera eramateko eta problemak soluzionatzera eta bueno, baldin bada nik egin dudana baino gehiago eta hobeki egitea, txalotu egingen diet. Hori bai, kontra egiteagatik bakarrik baldin bada, beren protagonismo eta partidismoagatik presentatzen badira, beti beren aurrean edukiko naute ni eta nere taldea.

ttipi-ttapa. Gaiaz aldatuz, orain parlamentari ere bazara. Nola ikusten duzu EAren papera mendialdean?

ORNOZ. Petrizan se-

nadore izendatzean sartu naiz ni. Haseran sorpresa izan bazen ere, onartu egin nuen. Bestela, zereginik badagoela argi dago. Mendialde osoa krisialdian sartua dago eta beraz, bultzada handia eman beharra dago. Nondik eman ere ikusten da eta alde hortatik, mendialdeak merezi duen mailara eramatea dugu burutan.

ttipi-ttapa. Besterik?

ORNOZ. Aurreko alean, Leitzako kronikan jartzen zena argitu nahi nuke: "zikin eta izkutuan" jokutzen ari denik baldin bada, aurreko hauteskundeetan botoen bitartez lortu ez zuten helburua orain maniobra zikinen bitartez lortu nahian dabilzanak dira. Horiek dira udaleko martxa usteltzen dutenak.

Testua: J.M. IRIGOIEN
Argazkiak: K. TOLOSA

Zenbait Herri Kirol txapelketetan izen emateko epeak bukatzeaz daude

Hilaren 19an egingen da Beran Nafarroako Arpana txapelketa

Udaberriarekin batera, Herri kirolak indarra hartzen ari da, eta horren erakusgarri, hainbat txapelketetan izen emateko epea apirilaren bukatzen dela da.

640 kilotako sokatira, hilaren 12an

Horrela, Apirilaren 12an bukatuko da 640 kilotako sokatira eta 100 kilotako harri altxatze txapelketetan apuntatzeko epea. Txapelketa honen erdifinalak, maiatzaren 16an Lesakan ("B" taldea) eta maiatzaren 31an Iruritan ("A" taldea) burutuko dira. Finala, berriz, Sunbilla izanen da ekainaren 14ean.

Ingude, gurdi, lasto, txingak, zaku eta aizkora, hilaren 17an

Nafarroako Ingude, gurdi, lasto, txingak eta zaku txapelketetan, baita Aizkora Olinpiadetarako txapelketetan izen emateko epea, Apirilaren 17an bukatuko da. Txapelketa hauen finalari dagokionez, maiatzaren 24ean ospatuko dira, Elizondon.

Beti bezala, izen emateko lekua, Nafarroako Herri Kirol Federazioak Donezteben duen bulegoa izanen da (Santa Luzia karrika 6) edo bertara deituz, 450900 telefonora.



lazko soka-tira txapelketa gehienetan Sunbildarrak nagusitu ziren

ARTXIBOA

Arpana txapelketa, hilaren 19an Beran

Arratsaldeko 7etan Eztegarra frontoian 21 bikote bilduko dira

Apirilaren 19an, arratsaldeko 7etan jokatuko dira Berako Eztegarra frontoian Nafarroako Arpana txapelketak, senior, emakume eta sub-20 mailetan.

Seniorretan

Santiago Inda eta Juan Indakoetxea (Sunbilla); Pello eta Manuel Cañameres (Arostegi); Jose M^a Iriarte eta Jose M^a Mujika (Amaiur); Jose eta F^{co} Leiza (Lesaka); Panttaleon eta Migel Errandonea (Arantzeta); Rafael Agerre eta Pello Jaunsaras (Almandoz); Larrayoz eta Pikabea (Ul-

tzama); Marcos Telletxea eta Patxi Mindegia (Labaien - Zubieta).

Egin beharreko lana, 8 kanaerdiko etzanda, lau kanaerdiko zutik eta lau 60 ontzakoak etzanda.

Emakumezkoetan

Dolores Larralde eta Juana Baztarrika (Sunbilla); Ana Mujika eta Mariabel Arzubia (Lesaka); Arantxa Etulain eta Dorita Barrenetxe (Aniz); Ana Gartxitorena eta Mari Loren (Berroeta eta Irurita); Ana Ibarra eta Silvia Mezquiriz (Berriozar); Maite

Berasategi eta Maite Biurarena (Bera); Mirian eta M^a Jose Lizardi (Arantzeta).

Egin beharreko lana, 8 ebakialdi 80ko enberrari.

Sub-20

F. eta I. Ramirez (Berriozar); P. Arregi eta P. Osés (Berriozar); Joseba Arzubia eta Alberto Otxoteko (Lesaka); Miguel Angel eta Jose Etxeberria (Labaien); Asier eta Oskar Maritorea (Aniz - Berroeta); Aitor Mutilba eta Hector Cabeza (Ultzama).

Egin beharreko lana, 8 ebakialdi 80ko enberrari.

RUGBYA

Sarako Izarra finalen karietara ailegatu da

Joan den martxoaren 22an xapelketako finala erdietan Sarako Izarrak irabazi du Saint Julien en Borne herriko Landestarraren aurka.

Erdi finala hauek bi ai-

tadetan iragan dira, batean Saran jokatu eta bertze-koan Landesetan.

Orai, «*Promotion Honneur*» mailan jokatu dute finala Apirilaren 5ean Azkaindarren aurka.



PILOTA



Goizuetako Pilota txapelketak, urtero izan ohi duen arrakasta eta parte hartze handia izaten ari da aurtengoan ere Haundien, Jubenilen, Kadeteen eta infantilen mailan, kanpoko pilotariak ere bertara bilduz. Aurtengoan, halere, jende gehien erakarri duena, lehenengo aldiz eratu den "pilota goxo"aren modalitatea izan da, ia 30 bikotek parte hartzen bait dute.



Hasi dira dagoeneko haurrak Herri Kirol txapelketan

24 talde Irurtzuneko finalerako txartel bila

Martxan dago jadanik Haur (Infantil) eta Kadete mailan Nafarroako II. Herri Kirol txapelketa. Bertan, 24 talde arituko dira norgehiagoka bortz asteburutan zehar, Irurtzunen apirilaren 26an egingen den finalerako txartela eskuratu nahirik.

Elizondo, Basaburua-Baztan, Sunbilla, La-

baien, Arantza, Bera eta Nafarroako bertze zenbait herritako gaztetxoek Herri Kirol mundu honetan lehenengo oinarria jartzen ari dira, etorkizunean kirolari bikainak izateko ideiarekin. Orain arteko saioak, Sunbillan, Beran eta Arantzan egin dituzte, eta Aniz eta Labaien ere arituko dira.

Hamabostaldiko jokaldiak



Arpana txapelketan partaidetza.

Guztira 21 bikotek parte hartuko dute Beran, apirilaren 19an burutuko den Nafarroako Arpana txapelketan: 8 senior mailan, 7 emakumezkoetan eta 6 sub-20 mailan.



Leitzaldean Herri Kirol talderik ez izatea.

Leku gehienetan indartzen ari den kirola izanik, harritzekoa da Leitzaldean taldetxo bat ere ez ateratzea, ez haur mailan eta ez helduetan. Animo eta hasi gauza mugitzen.

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Donezteben**, 24m²ko lokala alokatzeko dute Ezkurra erretegiaren ondoan. 18.000 pza hilabete. 451518 ☎

• **Oieregin**, Bertizkoaren ondoan pisua alokatzen da. Sukalde ekonomika, 2 logela, jangela, garajea eta terraza. 22.000 hilabete. 451518 ☎

• **Elizondon** pisua salgai, 3 logela, jangela, sukaldea, bi balkoi eta telefonorekin. Prezioa moblerik gabe, 6.400.000 pza. Mobleekin, 6.800.000 pza. 581001 ☎

• **Baserri** edo borda bat erosi edo alokatu nahi genuke. Merke!. 943-270511 ☎. Borja (Goizez deitu).

Lana

• **Ingeles klaseak** emanen nituzke. Akademian edo partikularrak. Maila guztiak. Titulatua naiz. 631136 ☎. Bera.

• **Donostian** fijo bezala lan egiteko neska behar da. Asteburuak libre eta jai egunetan orduren baita. 943-216435 ☎

• **Neska** gaztea eskeintzen da edozein lan egiteko Lesakatik hurbil. 450528 ☎

Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentsat, bertsolarientzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **Lesakan** lokal bat traspasatzen da. Deitu 10tik letara eta 5etik 8etara 637410 ☎

• **Artaldetik** 3 ardi falta zaizkigu. Ikusi zituzten azken aldia Etxalarko bentetan izan zen. Ikusi badituzu, deitu 943-429378 ☎

Salerosketak

• **7 urteko** neskak batentzat bizikleta bat erosi nuke. 631188 ☎

• **Aluminiozko** bi bitrina, brontze kolorekoak salgai. Neurriak: 2 x 1,90 x 0,5 m. Baita mostradorea kajoiekin eta erakusteko bitrinarekin. 63 04 19 ☎

• **Huqsvarna 430** - Enduro motoa salgai, 500.000 pztatan. NA-AC

markakoa. 452286 ☎

• **Bideo jokoan** kontsola salgai, 208 jokurekin, 8.000 pztatan. 637372 ☎

• **NA-G** matrikuladun 127 bat salgai. Egoera onean. 637141 ☎ (Karlos).

• **Gutti** erabilitako Ciclone gitarra eta Caiman anplifikadorea salgai 40.000 pztatan. Interesatuak, 637948 ☎ deitu (eguerdian 1,30ak aldera).

• **Collie** txakurkumeak salgai. 599218 ☎

• **"Strong"** haurrentzako bateria salgai. Modu onean. 630135 ☎

• **Zakur** setter (oilagorrratak) baten umeak, bi hilabeteak, ar eta emeak salgai. 510265 ☎ (Leitza).

• **Akordeioa** salgai, Crucianelli markakoa, 120 bajo, egoera oso onean. 637103 ☎

• **Kotxe** zahar bat, merkea, salgai. 450957 ☎

Harremanak

• **Leitzako** Babesneri, zorionak bere 11. urtebetetzean, bere senide eta Estitxuren partez.

• **Iruritako** Ione Oteizari zorionak zure urtebe-

teztean, ia segitzen duzun beti bezala, horren polita eta jatorra. Lagun bat.

• **Doneztebeko** Ainhoa Arraztoari zorionak! Zure konbitearen esperoan gaudete. Zure legun zintzoak.

• **Leitzako** Amaia Alduntzini: Zorionik beroenak zure urtebetetze egunean eta beti bezain alai eta jator segi dezazula. Zure lagunak.

• **Goizuetako** Martina Loiarteri, zorionak zure urtebetetze egunean. Bazkari ederra eginen dugu. Zure familiaren partetik.

• **Leitzako** Ruben Astibiari, zorionak eta urte askotarako. Zure anaia.

• **Iruritako** Izaskun Zabaletarendako. Lagun maite bat naiz eta laister nirekin aurkituko zara. Izkutuko neska.

• **Amaia** lagun maitea, zorionak eta ongi pasa zure urtebetetzean. Garbiñe, Kristina eta Kontxi zure lagun partetik.

• **Leitzako** Joana Barriolari, zorionik beroenak atzerapen pixka batez zure gelako Orkatx Erbitiren partez.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA Tfnoa:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



• **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...

• **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**

• **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**

• **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**

Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

Praktikak:

Aste bat eskolan eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

Nor matrikula daiteke?

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

EUSKARAZ eta ERDARAZ

Leitzeko ZINEMA

Apirilaren 3an, ostirala

10,30etan: "El Rey Pasmado"

Apirilaren 5ean, igandea

5etan eta 8etan: "Solo en casa" (komedia)

Apirilaren 10ean, ostirala

10,30etan: "Thelma eta Louise" (Akzioa)

Apirilaren 12an, igandea

5etan: "Bingo" (Komedia)

Apirilaren 19an, igandea

7etan: "Marcelino pan y vino" (Drama)

Apirilaren 20an, astelehena

7etan: "La pequeña pícaro" (Komedia)

Apirilaren 24ean, ostirala

10,30etan: "La fosa común" (beldurrezkoa)

Apirilaren 26ean

5etan eta 8etan: "Dos duros sobre ruedas" (Akzioa)



Maiatzaren 1ean, Ostirala

5etan eta 8etan: "¿Qué hacemos con la abuela?" (komedia).

Maiatzaren 3an, igandea

5etan eta 8etan: "Bajo la aurora boreal"

Maiatzaren 8an, Ostirala

10,30etan: "El rey pescador"

Maiatzaren 10ean, Igandea

5etan: "Gremlins 2" (komedia) eta 8etan "El rey pescador"

Maiatzaren 15ean, Ostirala

10,30etan: "Delicatessen"

Maiatzaren 17an, igandea

5etan: "Regreso al futuro III" eta 8etan "Delicatessen"

Kultur Astean

"Los chicos del barrio" eta "Los rescatadores en Cangurolandia"

Maiatzaren 29an, ostirala

10,30: "JFK, Caso Abierto"

Maiatzaren 31an

5etan: "Rocketeer" eta 8etan "JFK, Caso abierto"



CRISTALERIA VELATE



ESKEINTZA APARTA ARMARIOETAKO ISPILUDUN ATE KORREDERETAN

ESKATU PRESUPUESTOA KONPROMISORIK GABE

.....
DELEGAZIOAK:

ELIZONDO

Pedro Axular karrika, 1

Tfnoa: 58 08 25

IRUÑA

Villava etorbidea 12 Behea

Tfnoa: 13 20 21

DONEZTEBE

Mercaderes 5

Tfnoa: 45 09 91

.....



ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako
Iturria anaiak

 **ESKUALDEKO AUKERARIK HAUNDIENA**

GRES ETA AZULEJOETAN

 **AZKEN MODELOAK ERA GUZIETAKO PREZIOETAN**

Juan Arana, 3

Tfnoa: (943)

61 17 67

IRUN